



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**ZATIKI ORGANIKOAK ETA ERREUS ZATIKIAK BILTZEKO 10 LITROKO ONTZIZ
HORNITZEA, PROZEDURA IREKI BIDEZ, KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO
KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA**

AURKIBIDEA

I. kapitulua - XEDAPEN OROKORRAK

- 1.- KONTRATUAREN HELBURUA
- 2.- EPEA
- 3.- LIZITAZIO-PREZIOA
- 4.- FINANTZAKETA
- 5.- ORDAINTZEKO ERA
- 6.- PREZIOAK BERRIKUSTEA
- 7.- BEHIN-BETIKO BERMEA
- 8.- KONTRATUAREN ARAUBIDEA ETA ESKUMENA

II. kapitulua - KONTRATAZIOA

- 9.- ESLEITZEKO PROZEDURA
- 10.- ESKAINTZAILEAK
- 11.- DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK
- 12.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA
- 13.- DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA
- 14.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK
- 15.- ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA
- 16.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

III. kapitulua - KONTRATUA GAUZATZEA

- 17.- KONTRATUA GAUZATZEA
- 18.- KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK
- 19.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA
- 20.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BETE BITARTEAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK
- 21.- LANTALDE ETA BALIABIDE PERTSONALAK
- 22.- BALIABIDE MATERIALAK
- 23.- HORNIGAIA ONARTZEA ETA BERME-EPEA
- 24.- ZIGORRAK KONTRATISTARI KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK EZ BETETZEAGATIK
- 25.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK
- 26.- MANKOMUNITATEAREN PRERROGATIBAK
- 27.- KONTRATAZIO MAHAIA

ERANSKINA: PROPOSAMEN-EREDUA

I. kapitulua.- XEDAPEN OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Baldintza Agiri honen arabera egingo den kontratuaren helburua hau izango da: 10 litroko ontziak, zatiki organikoa (ontzi marroietan) eta erreus zatikia (ontzi grisetan) biltzeko, hondakin horiek etxebizitzetan sortuak izan edo beste jardura ekonomiko batzuetan, baina sorturiko hondakinen ezaugarriak eta kopuruz haien parekoak, eta betiere Baldintza Teknikoen Agirian jasotako espezifikazio teknikoen arabera; eta horien guztizko kopuruaren zati bat aldez aurretik zehaztuko da, eta beste bat ez; beraz, azken kasu honetan kontratistak Mankomunitateari egingo dizkion emateak kontratuak irauten duen epean Mankomunitateak berari eskatzen dizkion kopuruetara egokituko dira. Baldintza Teknikoen Agirian aurrez ikusitako kopuru orientagarriak ere jasotzen dira.

Kontratua izenpetu ondoren, kontratistak lehen hornikuntza egingo du: 23.000 ontzi marroi eta 12.450 ontzi gris, hornikuntzaren zatirik handiena. Gero, kontratuak irauten duen bitartean, Mankomunitateak beste eskaera puntual bat egin ahal izango ditu bere premien arabera. Eta azkenik, Mankomunitateak azken ontzi-eskaera bat egingo du, zatika desmuntatuta eman beharrekoak (estalkia, gorputza eta heldulekua), edota ontziaren zati jakin batzuk eskatuko ditu, birjartzeko material gisa erabiltzeko.

2.- EPEA

Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, izenpetzen den egunetik aurrera.

Lehenengo emanaldia (23.000 ontzi marroi eta 12.450 ontzi gris) emateko epea bi hilabete eta erdikoa izango da, kontratua izenpetu ondorengo lehen lanegunetik zenbatuta. Hornikuntza hau mailaka egingo da epe osoan zehar hainbat emanaldi eginez. Mankomunitateak finkatuko ditu emanaldi partzial horien kopurua eta epea, baina inola ere ez du gaindituko gehienezkoa: 5 emanaldi.

Gainerako eskaerak entregatzeko epea 20 lanegunekoa izango da Mankomunitatearen jakinarazpena hartu ondorengo lehen lanegunetik zenbatuta.

Epe hori igarota, kontratista berandutzan sartuko da, eta ez dio Mankomunitateak aldez aurretik hertsatuki agindu beharrik izango.

Mankomunitateak bere lurralde-eremuan finkatzen duen lekuan egin beharko da emate edo entrega.

3.- LIZITAZIO-PREZIOA ETA KONTRATUAREN BALIOESPENA

Kontratu honen modalitatearen arabera, ez da ezarriko bere prezio osoa, baizik eta osatzen duten hornikuntza-unitateena; eta horietako bakoitzarena, BEZa sartu gabe, 2 €-koa izango da unitateko, eta eskaintzaileek hobetu egin dezakete prezio hori. Kasu honetan, kontratuaren balioespena 74.500 €-koa izango litzateke.

Aurkezturiko proposamenetan sartuta egongo dira ez bakarrik hornigaiaren prezioa, baita ere hortik eratortzen diren era guztietako zergak eta gastuak, fabrikazio, muntatze, emate-eta garraio-gastuak barne.

4.- FINANTZAKETA

Kontratu honen prezioa Mankomunitatearen Aurrekontu Orokorrean aurtengo ekitaldi ekonomikoan dagoen 3004.623.442.40.21 kontu-sail edo partidan zordunduz finantzatzeko da. Aurrekontu-gaietan eskudun den organoak konpromisoa hartzen du etorkizunean ukituko dituen ekitaldietako aurrekontuetan ere kontratu hau finantzatzeko behar diren kredituak gordetzeko.

5.- ORDAINTZEKO ERA

Hornidura adostasunez hartuta, dagokion faktura aurkeztu eta onartu ondoren ordainduko da prezioa.

Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 216. artikuluan ezarritako epeen barruan ordainduko dira fakturak.

6.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honi ez zaio inolako prezio-berrikuspenik egingo.

7.- BEHIN BETIKO BERMEA

Ekonomikoki eskaintzarik onuragarrienak aurkeztu dituzten eskaintzaileak behartuta egongo dira behin betiko bermea jartzera kontratazio-organismoaren esku. Bermearen zenbatekoa lizitazioan kalkulaturiko oinarritzko aurrekontuaren %5ekoa izango da, BEZ kanpo, hau da, 3.725€ da.

Berme hori aurkezteko epea hamar lanegunekoa izango da, errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera, eta Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 96. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan egin ahal izango da.

Bermea itzultzea Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean 102. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, berme-epea bukatu eta esleipendunak bere kontratuzko betebeharrak bete ondoren.

8.- KONTRATUAREN ARAUBIDEA ETA ESKUMENA

1.- Kontratuak hornitzeko administrazio-kontratuaren izaera izango du. Honako hauen arabera arautuko da: Administrazio Klausula Berezion Agiria, Preskripzio Teknikoen Agiria; 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena; 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena; eta Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrean indargabetu gabeko arauak. Era osagarrian, Administrazio Zuzenbideko arau orokorrak aplikatuko dira, eta horiek ezean, Zuzenbide Pribatukoak.

2.- Kontratuaren aplikazio edo interpretazioan, berori gauzatu, aldatu, bete edo suntsiarazterakoan sortzen diren auziak Mankomunitatean eskumena duten organoek ebatziko dituzte eta horien erabakiak berehala bete beharrekoak izango dira.

3.- Erabaki horien aurka jotzeko eskumena duen jurisdikzioa administrazioarekiko auzietarakoa izango da.

II. kapitulua.- KONTRATAZIOA

9.- ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu honen esleitzea PROZEDURA IREKI bidez egingo da.

10.- ESKAINTZAILEAK

Proposamenak pertsona natural nahiz juridikoek aurkez ditzakete, espainiar nahiz atzerritarrek, jarduteko gaitasun osoa izan, kontratatzeke debeku pean erori gabeak, eta ekonomia, finantza, teknika eta lanbide arloetan beren kaudimena egiaztatzen badute.

11.- DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK

1. Eskaintzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Enpresa elkartuek ezingo dute banakako proposamenik aurkeztu eta, hori egiten badute, ez zaizkie onartuko ez banakakoak eta ez elkartearenak.
2. Proposamenak hiru gutun-azaletan aurkeztuko dira, barruan ondorengo agiriak sartuta:

1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA

1.- 1. gutun-azalean, hauek sartuko dira:

a) Enpresaburuaren eta, hala balegokio, bere ordezkariaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak.

Nortasuna honela egiaztatuko da:

- Enpresaburua pertsona juridikoa baldin bada, eraketa-eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio-egintza aurkeztuta, horietan agertzen badira beren jarduera erregulatzen duten arauak, hala balegokio, dagokion Erregistro Publikoan behar bezala inskribatuak, zer-nolako pertsona juridikoa den kontuan izanda.

Enpresaburuak espainiarrak ez direnean baina bai Europako Batasuneko kide diren estatuetakoa kideak, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, dagokien Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, edota zinpeko adierazpena edo ziurtagiri bat aurkeztuz, arauz ezarritakoaren arabera, Europar Erkidegoan aplikatu beharreko xedapenen arabera.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek beren estatuan dagoen Espainiaren Diplomaziako Misio Iraunkorrek edo enpresaren egoitzari dagokion lurralde-eremuko Kontsuletxeko Bulegoak egindako txosten bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna.

- Eskaintzaileak bere izenean badihardu, nortasun-agiria (NAN-DNI) aurkeztu behar du, edo bere estatuan dagoen baliokidea.

- Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak izenpetzen dituztenek NANen kopia aurkeztu behar dute, baita horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa baldin bada, ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan inskribaturik egon behar du.

b) Kontratatzeko debekurik ez duela dioen aitorten arduratsua. Indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituelako adierazpena ere sartu behar da aitorten honetan.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeak agiriak behin betiko esleipena egin baino lehen aurkeztu behar ditu esleipena jasoko duen enpresaburuak.

c) Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren egiaztagiriak.

Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren justifikazioa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 75. artikuluan ezartzen duenaren arabera egingo da, ondorengo agiriak aurkeztuz:

- Finantza-erakundeen aldeko txostena.
- Lanbide-arriskuengatik kalte-ordainetarako aseguru dagoela egiaztatzen duen agiria.

d) Kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzeak bitartekoak.

Kaudimen tekniko eta profesionalaren justifikazioa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 77. artikuluan ezartzen duenaren arabera egingo da, ondorengo agiriak aurkeztuz:

- Azken hiru urteotan egindako hornitze nagusien zerrenda, horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko edo pribatua zehaztuz. Egindako hornitzeak organo eskudunak egin edo onarturiko ziurtagiri bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, eta hartzailea erosle pribatu bat denean berak egindako ziurtagiri baten bidez, edo ziurtagiri horren faltan enpresaburuaren aitorten bidez

Azken hiru urteetan kontratu honen xedearen antzeko hornidurarik egin izana egiaztatzen ez duten enpresa-eskaintzak baztertu egingo dira

e) Kontratuaren inguruan zuzenean edo zeharka sor litekeen edozein gorabeheratarako, atzerriko enpresek **aitorpen bat aurkeztu behar dute Espainian edozein mailatako auzitegi eta epaitegien eskumenean jartzen direla adieraziz**, eta, hala balegokio, beraiek atzerrian izan lezaketen foru jurisdikzionalari uko egin diotela adieraziz.

f) **Hala badagokio, posta elektronikoaren helbidea, jakinarazpenak egin ahal izateko.**

2.- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratu eta Kontratisten Erregistroen Erregelamendua onartzeko otsailaren 3an eman zen 12/1998 Dekretuak, Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapena ezartzeari buruzkoak, arauturiko Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribaturik dauden enkante-eskaintzaileek, a) eta b) ataletan eskaturiko agirien ordeztu, Erregistroaren organo arduradunak egin eta indarrean dagoen ziurtagiria aurkeztu dezakete, eta horrekin batera eskaintzailearen aitortza arduratsua adieraziz ziurtagiri horretan aipatzen diren zirkunstantziak ez dutela aldatetarik izan.

Agiri horiek guztiak jatorrizkoak izango dira edo behar bezala egiaztaturiko kopiak.

2. GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO TEKNIKOAK

2. gutun-azalean ondorengo dokumentazio teknikoak sartu behar da:

- **Proposatutako ontzien ezaugarri tekniko eta funtzionalen xehetasuna**

1. Ontzien sistemaren ezaugarri teknikoaren deskribapen zehaztua, hor sartuta neurriak, materialak, akaberak, ataltze-planoak, argazkiak edo beste edozein informazio grafiko, sistemak ikuspegi teknikoak ongien deskribatzen dituenak. Informazio hau paper formatuan entregatuko da eta formatu digitalean ere bai.
2. Eskaturiko iraunkortasun- eta erresistentzia-baldintzak egiaztatzen dituzten ziurtagiri guztiak.

Gainera, proposamenak aurkezterakoan, eskaintzaileak eredu bat aurkeztu behar du eskala errealean, %100ean muntatua eta operatiboa eskaturiko zatiki edo frakzioetako baterako, Mankomunitateko zerbitzu teknikoak aztertu ahal izan dezaten, eta egokiak iruditzen zaizkien proba operazionalak egiteko.

3. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Proposamen ekonomikoa Baldintza Agiri honen ERANSKIN gisa agertzen den ereduari estu atxiki behar zaio, eta bertan loteko eskaintako unitate-prezioa sartu behar da, proposamen ekonomikoaren ereduari jasotako eskaera-unitateen tarte desberdinetarako. Halaber, eskaintako unitate-prezio bakoitzaren xehetasuna ere sartu behar da, ontziaren zati edo osagai bakoitzean banakaturik: estalkia, gorputza, heldulekua eta ibiltzeko sistema, eta hori aplikatuko da kontratuak iraun bitartean Mankomunitateak ontziaren zati jakin batzuen eskaerak egiten dizkionean.

Agiri honetan kontsignaturiko prezioetan lanak kontratatu eta gauzatzeak eragindako edo eragingo dituen gastu guztiek egon behar dute sartuta eta, zehatzago esanda, ondorengo hauek:

- Kontraturiko prestazioa betetzeko esleipendunak zertu beharreko gastuak: emate- eta garraio-gastuak, oniritziak, gastu orokorrak, finantza-gastuak, aseguruak, tasak, fidantzak, saiakuntzak, joan-etorriak, bere ardurapeko langileen lansari eta dietak, eta Baldintza Agiri honetan ezarritako gainerako guztiak.

- Era guztietako zergak, BEZ barne, eta kontratuak iraun bitartean ezartzen edota aldatzen diren beste guztiak.

Kontzeptu horietako batere ezingo da gero aparteko kontzeptu edo kontu-sail gisa sartu.

12.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1. Aipatu diren gutun-azal horiek Debagoieneko Mankomunitatearen Sarrera Erregistro Orokorrean —Arrasateko Nafarroa Etorbidea, 17— aurkeztu behar dira, 15 egun naturaleko epean lizitazio-iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatuta.

Enkante-eskaintzaileak bere proposamena postaz bidaltzen badu, Postetxean bidalketa egin duen eguna justifikatu behar du eta egun berean eskaintza bidali duela jakinarazi Kontratazio Organoari telex, telefax edo telegrama bidez. Bi baldintza horiek ez badira betetzen edo bidalketaren jakinarazpena proposamenak jasotzeko epea igaro eta gero hartzen bada, eskaintza ez da onartuko. Bestalde, aipaturiko dataren ondoren hamar egun natural igaro eta proposamena ez bada iristen, ez da inola ere onartuko.

2. Gutun-azalak itxita, eta behar bezala sinaturik, aurkeztuko dira; gainean lehian parte hartzen duen enpresaren (edo enpresen) izena eta idazkun hau izango dute: **“Etxeko hondakinen eta parekoetatik datozen gai organiko eta erreus zatikiak biltzeko 10 litroko ontziz hornitzeko proposamena”**

Gutun-azal bakoitzean, gainera, edukia adieraziko da, honela:

- 1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA**
- 2. GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO TEKNIKOA**
- 3. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA**

13.- DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, garaiz eta behar bezalako forman iritsitako dokumentazioa (1. gutun-azala) kalifikatuko du Kontratazio Mahaia, horretarako Herri Administrazioen Kontratuen Erregelamendu Orokorraren 81. artikuluan ezarrita dagoen bezala jokatu.

Horretarako, eskaintzaileen gaitasun eta kaudimenari buruzko azalpenak edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dira, eta Erregelamenduko 22. artikulua xedatzen duen bezala aurkeztu beharko dira, bost egun naturaleko epean. Azalpenak edo agiri osagarriak eskatze hori Mahaiak ahoz adieraziko die interesatuei, eta aldi berean Mankomunitateko iragarki-taulan eta kontratatzailearen profilean ere iragarriko da. Era berean adieraziko du Mahaiak aurkezturiko dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsik baldin badago, kasu honetan hiru laneguneko epean eskaintzaileek zuzen ditzaten aurkituriko akats horiek.

Kontratazio Mahaiak, aurkezturiko dokumentazioa kalifikatu eta, hala balegokio, aurkituriko akatsak edo omisioak zuzendu ondoren, Baldintza Agiri honetan ezarritako hautespen-irizpideetara egokitzen diren enpresak zein diren erabakitzeari ekingo dio, argi eta garbi adieraziz zein diren lizitazioan onartuak, zein baztertuak eta baztertze horretarako arrazoiak.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondorengo bosgarren lanegunean —eta egun hori larunbatean suertatzen bada, hurrengo astelehenean, salbu eskaintzailearen batek bere eskaintza postaz bidali duenean, kasu honetan Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrak 80. artikuluan ezartzen duen epea bukatu ondorengo lehen lanegunean egingo baita— goizeko hamarretan irekiko dira 2. gutun-azalak, eta Kontratazio Mahaiari emango zaizkio baloratu ditzan barruan dauden dokumentu edo agiriak. Irekitze-ekitaldia jendaurrean egingo da, Debagoieneko Mankomunitatearen gela batean.

3. gutun-azala (proposamen ekonomikoa) ekitaldi publikoan irekiko da Mankomunitate honetako kontratatzailearen profilean (www.debagoiena.com) eta onarturiko enpresa eskaintzaileei bidaliko zaien jakinarazpenean adierazitako lekuan, datan eta orduan. Ekitaldi honetan balio-judizio baten mende dauden irizpideei esleituriko balorazioaren berri emango da.

14.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

1. Kontratu bakoitzaren esleipena lotekako eskaintza ekonomikorik onuragarrienari egingo zaio.
2. Kontuan izango diren irizpideak, baita horien ponderazioa ere kontratua esleitzeko, honako hauek izango dira:
 1. Proposamen ekonomikoa: %70.
 2. Dokumentazio teknikoa: %30.

1.- Proposamen ekonomikoa	70 puntu
Onarturiko proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, interpolazio lineal bidez egingo da, ondorengo bi puntu hauek mugaturiko zuzenaren arabera: P1 (beherapen maximoa, puntuazio maximoa) eta P2 (zero beherapena, puntuazio minimoa), eta puntu horiek mugaturiko zuzen horren segmentuaren barruan.	
Aipaturiko puntuak honako hauek dira:	

P1.- Eskaintzarik merkeena (beherapen maximoa), horri puntuazio maximoa emango zaiolarik (Pmax puntu). P2.- Lizitazio-tasari dagokiona, eta horri puntuazio minimoa emango zaio ondorengo formularen arabera: $P_{min} = P_{max} \times (1 - B_{max} \times 3)$ (Bmax = Beherapen maximoa) Beherapena (B): lizitazio-tasaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea da, lizitazio-tasarekin zatituta. Pmin-en kalkulua negatiboa izango balitz, Pmin = 0 hartuko da. Lehen zehazturiko zuzena lortzeko, onarturiko oinarritzko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan. Lote bakoitzeko proposamen ekonomikoaren puntuak lote bakoitzean goian deskribaturiko zuzenetatik lorturiko puntuen baturaren %70 izango dira. Printzipioz, neurrigabeko edo ausarkeriazko beherapen gisa hartuko da aurkezturiko oinarritzko proposamen guztien beherapen-ehunekoen batez besteko aritmetikoa 10 unitatetan gutxienez gainditzen duena, eta hori neurrigabeko edo ausarkeriazko beherapentzat jotzeko Kontratazio Organoaren erabakia beharko da; horretan ustez inplikaturiko eskaintzaile guztiei informazioa eskatuko zaie aurrez, eta dagokion Zerbitzuaren aholkularitza tekniko ere eskatuko da.	
2.- Dokumentazio tekniko: Ontzien ezaugarri tekniko eta funtzionalak Honako hauek balioetsiko dira: - Sistema osoaren akaberak eta sendotasuna, eta osagai edo zatietako bakoitzarena, indartzen duten egiturazko elementuen presentzia balioetsiz: 8 puntu. - Mankomunitatean ezarritako esekitokien sisteman ongien egokitzea: 8 puntu. - Edukiontzia osatzen dituzten zatiak muntatu eta desmuntatzeko erraztasuna; 8 puntu - Erabiltzeko erraztasuna: 6 puntu.	30 puntu

15.- ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio-organoak, Kontratazio Mahaiaren proposamenari jarraituz, aurkezturiko proposamenak, proportziogabetzat edo anormaltzat jo gabeak, beheranzko ordenan sailkatuko ditu, Baldintza Agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera.

Kontratazio-organoak ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen eskaintzaileari eskatuko dio, hamar laneguneko epearen barruan, honako hauek aurkezteko: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak, kontratua gauzatzera dedikatu edo atxikitzen konprometitu den baliabideak benetan badituela egiaztatzen duten agiriak, laneko arriskuen prebentzioari buruzko agiriak, eta behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duten agiriak.

Kontratazio-organoak dokumentazioa hartu ondorengo bost lanegunen barruan esleituko du kontratua.

16.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Mankomunitateko organo eskudunak behin betiko esleipena egin eta hori jakinarazi ondoren, kontratua administrazio-dokumentuan formalizatu behar du esleipendunak gehienez ere hamar laneguneko epean, behin-betiko esleipenaren jakinarazpenaren biharamunetik zenbatuta, eta agiri hori aski titulu izango da edozein erregistro publikotara iristeko. Hala ere, kontratistak eska dezake kontratua eskritura publiko bihurtzea, dagozkion gastuak bere kontura izango direlarik.

Kontratistari egozteko moduko kausengatik kontratua ez bada aipaturiko epearen barruan formalizatzen, Mankomunitateak indargabetzea erabaki dezake, baita behin betiko bermea konfiskatzea ere.

Kontratua formalizatzeko ekitaldi berean eta hori izenpetzeaz gain, esleipendunak Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak ere izenpetuko ditu, horrela agertuz baduela horien berri eta ados dagoela.

Kontratua formalizatzea ezin saihestuzko baldintza izango da edozein ordainketa bideratzeko.

III. kapitulua.- KONTRATUA GAUZATZEA

17.- KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratu hau betetzea kontratistaren arrisku eta benturara egingo da, eta honek ez du kalte-ordaina eskatzeko eskubiderik izango ondasunak Mankomunitateari eman aurretik horiek galdu, matxuratu edo kaltetu egiten badira, salbu Mankomunitatea atzeratu egin bada horiek hartzeko duen epean.

18.- KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Lan arloan, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan 31/1995 Legeak —azaroaren 8koak, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoak— araututa indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu kontratistak, berea bakarrik izango delarik lan-istripuen inguruko erantzukizun osoa.

Kontratistak ez baditu betebeharrak hauek betetzen, Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango

19.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Kontratuaren xede den zerbitzu-ematearen eremuan segurtasun eta osasunaren erantzulea kontratista denez, aplikatzekoak diren arau juridikoak eta teknikoak beteko ditu.

Debagoieneko Mankomunitateak eskubidea izango du prebentzio-arloan egokia iruditzen zaion dokumentazioa eskatzeko kontratuak irauten duen bitartean.

20.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BETE BITARTEAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak 214. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratista izango da kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz sortzen diren kalteen erantzulea.

21.- LANTALDE ETA BALIABIDE PERTSONALAK

Kontratatik lantalde eta baliabide pertsonal egokiekin egin beharko ditu lanak, une oro erantzunez lan horien martxan sortzen diren premiei.

22.- BALIABIDE MATERIALAK

Kontratatik bere proposamenean sartutako baliabide teknikoak eta, oro har, lanak ongi egiteko behar diren baliabide guztiak jarriko ditu.

23.- HORNIGAIA ONARTZEA ETA BERME-EPEA

Hornigaia ekarri ondoren, gehienez 15 egunetan egingo da horren hartze-egintza formal eta positiboa.

Hornigaia ez badago hartzeko moduko egoeran, espresuki agerraraziko da eta aginduak emango zaizkio kontratistari akatsak zuzen ditzan edo hornitze berria egin dezan, itundutakoaren arabera. Zuzentze edo ordezkatzeko hori egiten ez bada, Mankomunitateak kontratistaren kontu utziko du, ordaintzeko beharrik gabe edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea lortuz.

Halaber, onartze formala egiten denetik aurrera, urtebeteko epea ezarriko da berme gisa, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginean eta Herri Administrazioen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako ondorioetarako.

Berme-epe horretan Administrazioak eskubidea izango du akatsekin saldu dizkieten ondasunak birjartzeko edota, aski baldin bada, konpontzeko.

Berme-epe horretan Administrazioak egiaztatzen badu ekarri dizkieten ondasun horiek ez direla gai nahi den helbururako, eta hori kontratistari egotz dakizkiokeen akatsengatik baldin bada, eta pentsatzen badu horiek birjartzea edo akastunak konpontzea ez dela aski izango aipaturiko helburua lortzeko, aukera izango du epe horren barruan atzera bota edo errefusatzeko eta kontratistaren kontura uzteko, eta ordaindu beharretik salbuetsita geratuko da bera edota, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

24.- ZIGORRAK KONTRATISTARI KONTRATUA BETETZEKO EPEAK EZ BETETZEAGATIK

Kontratista, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, atzeratu egin bada hornigaia entregatzeko zuen epea betetzen, Administrazioak kontratua suntsitzea erabaki dezake, kontratistak bermea galduko duelarik, edota Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak 212. artikuluan aipatzen dituen zigorrak ezartzea erabaki dezake.

25.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK

Hornitze-kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren 223 eta 299. artikuluetan ezarritakoak.

26.- MANKOMUNITATEAREN PRERROGATIBAK

Mankomunitateari dagozkio prerrogatiba hauek: kontratua interpretatzea, hori betetzerakoan sortzen diren zalantzak erabakitzea, interes publikoagatik aldatzea, suntsiaraztea erabaki eta horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak ezartzen dituen muga barruan eta betebeharrak eta ondorioen arabera.

Horretaz hartzen diren erabakiek administrazio-bidea bukaraziko dute, eta berehala betebeharrekoak izango dira.

27.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Hauek izango dira Kontratazio Mahaia osatuko duten kideak:

Lehendakaria:

- Inazio Azkarragaurizar Larrea, Mankomunitateko lehendakaria

Mahaikideak:

- Josu Pereda Lezeta, Ingurumen Batzordeko kidea
- Luis Lonbide Sagastizabal, Ingurumen Zerbitzuko Ustiapen arduraduna
- Ander Elortondo Bergaretxe, Mankomunitateko behin-behineko kontu-hartzailea.
- Belen Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko behin-behineko idazkaria.

Idazkaria: Belen Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko behin-behineko idazkaria.

EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen 2012ko irailaren 13an egindako bilkuran.

**Arrasaten, 2012ko irailaren 14an.
IDAZKARIA**

1. ERANSKINA: PROPOSAMEN-EREDUA

..... jaunak/andreak (adinez
nagusia,(e)n bizi dena eta N.A.-zka.
duena)(r)en izenean eta ordezkari (honek egoitza
soziala(e)n eta CIF-IFK-zka. duelarik)
zera

AZALTZEN DU:

Lehen. Ezagutzen dituela etxeko hondakinen eta parekoetatik datozen gai organiko eta erreus zatikiak biltzeko 10 litroko ontziz hornitzearen kontrataziorako Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak.

Bigarrena. Bere erantzukizun pean aitortzen duela enpresa eskaintzailea ez dagoela, indarrean dagoen legeriaren arabera, Administrazioarekin kontratuak egiteko debeku-kasuetan sartuta, behar hainbat gaitasun juridiko eta bitarteko badiatuela aipaturiko lanak egiteko eta betetzen dituela kontratu honetarako eskatzen diren baldintza espezifikoak.

Hirugarrena. Esleipendun gertatuz gero, onarturiko Agirietako baldintza eta betebeharrei zorrotz jarraituz egingo duela **hornikuntza** lotekako unitate-prezio hauen arabera:

Lote-zka.:.....

Unitate-prezioa:

- **Ontziaren estalkia:**€/alea, gehi.....€ (%.. BEZ).
- **Ontziaren heldulekua:**€/alea, gehi.....€ (%.. BEZ).
- **Ontziaren gorputza:**€/alea, gehi.....€ (%.. BEZ).

(Data eta sinadura)